

Informazio Buletin Digitala

2026ko urtarrila

Getxo Enpresa Merkasaretzarekin

Merkasaretzak, Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sareak, saltokiei laguntza eskaintzen die haien lehiakortasuna hobetzeko eta sektoreko aldaketei egokitzeko. Elkartea sare horren barruan dago, Merkataritza Laguntzako Puntu (MLP) bat dauka eta aholkularitza eskaintzen du, tokiko saltoki bakoitzaren errealitatearen ezagutza oinarrituta. Merkasaretza Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza Sailaren programa bat da.




MerkaSaretza

Merkataritza Laguntzarako Puntuen Euskal Sarea
Red Vasca de Puntos de Asistencia Comercial

+ Info

35
CONCURSO
DE ESCAPARATES
DE GETXO-KO
ERAKUSLEIHO
LEHIAKETAK
2025

Escaparates participantes
www.getxoimpresa.com
Erakusleho parte hartzaileak



 [getxo_empresa](#)  [getxoimpresa](#)  [getxoimpresa](#)
 newsletter@getxoimpresa.com

Organizador - Antolatzailea
Getxo  Enpresa

Partner/ Backside
 **Getxo**
2025

Getxoko 35. erakusleho lehiaketako bozkatzaile irabazleak

Berrehun pertsona baino gehiagok haien erakusleho gustukoena bozkatu dute eta Getxoko 35. Erakusleho Lehiaketak haiei ere sari bat eman die.

Bozkatzaileen artean egindako zozketan, honako hauek saritu dituzte: Spazio Amezuako erakuslehoia bozkatu zuen Pilar Agirre erandioztarra eta Vivó la Danseko erakuslehoia bozkatu zuen Claudia Sancho getxoztarra.

Parte Hartzaileak + Irabazleak

Elkarteko kideen artean kontsumoa sustatzea

Ekimen horren helburua da gure elkarteko saltokien arteko kontsumoa sustatzea. Interesdunek nahi dituzten beherapen eta sustapen-kanpainak eskaintzen dizkiete elkarteko beste saltoki-kideei. Hala, saltokiko titularrak zein langileak beherapen horien onuradun izan daitezke, eta beherapenak eskaintzen dituen saltokian kide-txartela aurkeztu besterik ez da egin behar.

Parte Hartzaileak + Info



Elkarteko Kideak sare sozialetan hedatzeko zerbitzua

Xedea da gure kolektiboko kide diren saltokiei ahalik eta ikusgarritasun handiena eta balio erantsia eskaintzea. Kide diren ia hirurehun saltokiak elkarteko sare sozialetan zenbait formatutan sustatzen ditugu..

+info



Teknologia berriak saltoki txikian: nondik hasi?

Saltoki txikientzat teknologia ez da luxu bat, tresna bat baizik, zeinak bezeroaren esperientzia hobetzeko eta merkatuan lehiatzeko aukera eskaintzen dion. Giltzarria da oinarrizko alderdietatik hastea, pixkanaka aurrera egitea eta tresna sinple, merke eta erabilgarriak aukeratzea.

Digitalizazioa ez datza dena bikain egitean, baizik eta egunero hobeto aritzean.

Abiapunturik errazena ezagutzeko, sartu gure webgunean:

www.getxoempresa.com.



+ info



Saltokirako konponbideak bilatzean, zergatik ez fidatu Googlen lehenengo emaitzetan?

Googleko lehenengo emaitzetan itsu-itsuan konfiantza jarritz gero, agian saltoki txiki batekin bat ez datozen konponbideetan dirua gastatuko duzu. Batzuetan ondo kokatutako iragarkiak edo edukiak dira, baina ez aukera merkeak edo eraginkorrak. Halaber, enpresa handietara bideratutako erantzun orokorrak eskaini ohi dituzte eta tokiko merkataritzaren errealitatea alde batera uzten dute, aurrekontu mugatua, denbora gutxi eta behar oso zehatzak izatea, alegia.

+ info

Otros Boletines Digitales

Getxo Enpresa

www.getxoenpresa.com

info@getxoenpresa.com



Arene Kalea, 22, 48991 Getxo, Bizkaia

[Política de Privacidad](#)

